

Danele Sarriugarte

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Zapaltzailearen takoiak

ORAIN BI HILABETE ESKAS, Nekane San Miguel, Mari Luz Esteban eta Isabel Otxoak iritzi artikulua plaza-ratu zuten *Berria* egunkarian, honako gai honen buel-tan: ETBn eguraldiari buruzko informazioa ematen duten emakumeen janzkera. Zehazki, aurkezle horien zapatak ekarri zituzten hizpidera, takoi garaiak ibiltzen ditu-eta, erruz, Ana Urrutiak.

Hurbileko takoiak deitzen zen testua eta autoreek zioten, besteak beste, takoiak ez direla eroak eta osasun arazoak sortzen dituztela, pertsonaren mugitzeko gaitasuna ikaragarri mugatzen dutela, eta, azkenik, irudiak ez direnez, ez, inuxenteak, telebistako *prime time*an gisako oinetakoekin apaindutako emakumeek eredu oso zehatz bat bultzatzen dutela, behatua izateko objektuarena.

Gaiak soka luzea ekarri zuen, eta niri akordatu zitzaidan irudiek ez ezik hitzek ere balio dutela este-reotipoak birsortzeko eta gizartearen ordenamendu funtsean maskulinoa sasoiz sasoi berrindartzeko. Akordatu zitzaidan Inma Errea itzultzaile eta idazleari entzundako solasaldi bat; bertan, Erreak ariketa interesgarri bat ekarri zigun: tradizioz emakumei edo gizonei lotzen zaizkien objektuen izenak bilatu zituen Ereduzko Prosa Gaur datubasean. Takoi hitza sartuta, literatura testuei zegozkien 236 adibideetatik, puska handi batek emakumeen takoi zorrotzei egiten zion erreferentzia, eta adibide horietan azpimarratu egiten zen emakumeak zer ziren sexiak, takoiak soinean zituztela. Literaturan, hortaz, takoiak emakumei eta horiek kitzikatutako sexu desirari lotuta agertzen zaizkigu, eta ez, esate baterako, herrenka dabilen norbaiten ortopediainetakoiei.

Edonola den, minen akordatu zitzaidana beste kontu bat izan zen, telesail oso B mailako bateko kapitulua, *Modern Family*-

koa, alegia. Mota horretako ekoizpenek, entretenimendu xamurra sortzea eta ikus-entzuleen gehiengoarekin bat etortzea helburu, ez dizute galdera existentzial sakonegirik planteazten; bazka ematen dizute, ordea, ikerketa soziologiko ximple batzuk egiteko, hau da, sozialki onartua dagoenari tankera hartzeko, nahiko modu errealistan. Kapitulu zehatz hark gordin ikusarazi zidan takoiaren beste funtzio bat, ezinago perbertsoa.

Honatx trama: familia modernotzat saldu nahi dituzten arren, mamian ikaragarri tradizionalak diren hiru familia protagonistek —ez diotenez erotikako kontra-proposamenik egiten senitartekotzaren oinarritzko zimenduei— txangoa antolatzen dute atrakzio-parkera. Bikote gayak ez daki zer egin alaba txikiarekin, gora eta behera baitabil jauzika, eta deskuidatzen direnero, parkeko beste muturreraino joana dela egiaztatzen dute. Hasiera batean, saiatzen dira umeari txakur-uhalekin eusten, baina jendeak gaitzespenez begiratzen diela-eta, bazter uzten dute estrategia hori.

Orduan, hauraren aitona, bera baino 30 urte gazteagoa den emakume batekin ezkondua, epifania betean deskubritzen du andrea hain sarritan ozpinduta egotearen arrazoi nagusietako bat dela, azken buruan, takoi izugarri deserosoekin ibiltzen dela beti. *Flashback*ean gogoratzen du nola itxaron behar izaten dion kaletik doazenean, nola eman behar izaten dion eskua eskailekarak jaisteko. Bonbilla artean ñir-ñirka, merchandising-denda batera sartu eta printzesa-zapatatxo (takoidun) batzuk erosten ditu bilobarentzat, horiek oinetan dituela ez baitu posible izango harrapatu ezineko moduan urruntzea, aske ibiltzea.

Txakur-uhala ez bezala, zapaltzailearen takoiak ez ditu inortxok ere begitan hartzen. ■



Antton Olariaga